

ORENDAINGO berrie



UDAL ALDIZKARIE



2013ko MARTXOA 5.alea

2 orria
Erronka nagusia

2-3 orriak
Lantaldeak eta hizlariak

4 orria
Galdetegia eta lanpostua

ORENDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

Zer nolako Orendain gustatuko litzaiguke izatea hemendik aurrera? Zertan hobetu dezake gure herriak? Zein behar identifikatzen ditugu herrian? "Hau noizbait egingo balitz... Hura egingo bagenu..." edo antzeko esaldiak izaten al dituzu buruan?

Zihur gaude ideia asko eta onak daukazula elkarbanatzeko. Hau dela eta, Orendainen hasiko den **Agenda 21aren eraberritze prozesuan** parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Agenda 21a? Zer da hori? Agenda 21a, herrian egin nahi diren proiektuek osatzen dute. Ekintza plan antolatu bat da; udalaren lan ildoak definitzen dituen dokumentua azken finean. Proiektu hauek erabakitzerakoan, herritarren iritzi eta erabaki ahalmena ditu ezaugarritzat. Baita jasangarritasun eta ingurunearekiko begirunea ere.

Aurreko legegintzaldian egin zen Agenda 21a osatzeko lehenengo parte hartze prozesua eta orduan hasitakoari jarraipena eman nahi diogu.

Gu udalera iritsi ginenean aurreko legegintzaldian onartutako ekintza planaren %40a zegoen burututa. Gaur egunean berriz, %75 beteta izatera iritsi gara. Berritzeko garaia iritsi da.

Zein izango da parte hartze honen ibilbide orria? Hasteko, herritarrak lantaldeetan bilduko lirateke beraien interes edo nahiaren arabera. Bertatik ekintza proposamenak aterako direlarik. Ekintza proposamen hauei, beste herritarren, udaleko langileen eta odezkarri politikoen ekintza proposamenak gehitzeko aukera egongo da. Ekintza proposamen guzti hauek galdetegi batean bilduko dira. Galdetegi hau etxe guztietan banatuko da eta handik ateratzen diren emaitzen arabera berridatziko da Agenda 21 eraberritua. Amaitzeko, udalak pleno batean, Agenda 21ean agertzen dena, bere egingo du.

Gero eta garrantzia handiagoa du gainera Agenda 21a txukun izateak. Inoiz baino gehiago hartzen baitute kontutan berau laguntzak ematerakoan.

Marraz dezagun beraz biharko Orendain guztion artean.



Erronka nagusia

Agenda 21a oso dokumentu zabala da. Alor asko jorratzen ditu eta beraz golpe batean osorik berritzea ezinezko ikusten dugu.

Horregatik, Agenda 21aren barruan dauden hainbat azpi atal bereizi ditugu: ingurumena, 1. sektorea, enplegua, zerbitzuak, hezkuntza, kultura hirigintza eta udala.

Edozein herritarrek, bere interes edo nahien arabera aukera dezake zein taldetan hartu parte. Helburua? Talde bakoitzean dozena erdi pertsona behintzat biltzea. Egokia litzake bestalde etxe bakoitzetik norbait talderen batean parte hartzen aritzea. Baita talde hauen osaera anitza izatea ere: bai parekidetasunari dagokionez, bai adinari dagokionez...

Hau zure esku dago ordea. Badakizu...parte hartu!

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

INGURUGIROA

- Energia kontsumo eraginkorrak
 - Paisaia babestu
- Energia ornikuntzak hobetu
 - Mugikortasuna
 - Hondakinak
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

ENPLEGUA

- Ekonomiaren sustapena
 - 1. sektorea suspertzea
- Zer egin langabeziarekin?
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

HEZKUNTZA

- Hezkuntza zerbitzuak
 - Baurreskola
- Umeen/gazteen hezkuntza
 - Aisialdia
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

1. SEKTOREA

- Nekazal lurak babestu
 - 1. sektorea suspertu
- Baserritar eta artzaien bizi baldintzak hobetu
 - Basoak
- Ustiategiaren inpaktua
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

HIRIGINTZA

- Etxegintza
 - Ura eta arazketa
 - Bide sareak hobetzea
 - Irisgarritasuna hobetzea
- Energia hornikuntzak hobetu
 - Paisaia babestu
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

ZERBITZUAK

- Oinarrizko zerbitzuak
- Osasun eta gizarte zerbitzua
 - Mugikortasuna
- Eraikin berriko 1.solairua
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

KULTURA

- Aisialdia
- Ekintza kulturalak
 - Herri giroa
- Parte hartzea bultzatu
 - ?

OREDAINGO PARTE-HARTZE PROZESUA

UDALA

- Arriskuen analisia
 - Udal kudeaketa
- Herria eta udalaren arteko komunikazioa
 - Parte hartzea bultzatu
 - ?

Lantaldeen bilerak; ekintza proposamenik egokienak eraikiz

Benetako parte hartze prozesu bat izan dadin nahi dugu; ez itsurazkoa. Ezinezko litzake Herri Batzar batean hausnartutako ekintza proposamenik egitea. Horregatik, 4 saiotan banatu dugu lantaldeen parte hartzea.

1. saioan, Orendaingo diagnostika egitea izango da helburu. Zer egin da orain arte? Zein ekintza daude egiteko? Zein dira alor bakoitzean Orendainek dituen indarguneak? Zein ahulguneak? Orendainen erradiografia egingo da eta lantaldeetako kideak udalak alor horren inguruan duen informazio guztiaren jabe egingo dira.

2. saio batean, alor horretan aditu diren pare bat hizlari ekarriko dira. Helburua? Ekintza proposamenak egin baino lehen, alor horrekiko ikuspegia zabaltzea, formatuta dagoen iritzia izaten laguntzea lantalde hortako kideei...

INGURUMENA	ENPLEGUA	1. SEKTOREA	HEZKUNTZA	ZERBITZUAK	KULTURA	HIRIGINTZA	UDALA
Energia berriztagarriak	Tolosaldea Garatzen	ENHE	Ernesto	Gizarte laguntzailea		Udal arkitektoa	Tolosaldea garatzen
Tolosaldea Garatzen	Gizarte laguntzailea	Tolomendi	Idazkaria	Tolosaldea Garatzen		Bestelako hirigintza ereduak	Oñatiko ereduak

3. saioan ekintza proposamenak egiteko erabiliko da. Taldeko partaide bakoitzak, nahiz guztien artean, herrian aurrerantzean alor horren inguruan egin beharrekoak zehaztuko dituzte. Partaide guztien ideiak bilduko dira.

Lehen hiru bilera hauek, maitza- ekaina bitartean gauzatuko dira. **4. eta azken bilera** berriz, irailean. Azken bilera honetan, udal teknikariek prestatutako galdetegiari onarpena ematea izango da helburu. Herritarrek proposatutako ekintzak beraiek nahi bezala aurkezten direla ziurtatzeko.

Galdetegia; erabakiak herritar guztien artean hartuz

Legegintzaldi hasieran ere galdetegi formatoa erabili genuen herritarren iritzia jasotzeko eta izandako arrakasta ikusita, berriz ere formato hau erabiltzea erabaki da.

Bertan, lantaldeetan, aurrez dauden, udal txeko, nahiz beste herritarrek herri batzarretan egindako ekintza proposamenak agertuko dira.

Ekintza proposamen bakoitzaren ondoan, berau burutzeko beharrezko den aurrekontua, zein diru laguntza aukera dituen eta ekintza hori gauzatzekeo jarraitu beharreko pausuak agertuko dira. Baita gerora izan lezakeen mantenu gastua ere.

Herritarrek, modu honetan, ekintza proposamenik egokienak aukeratu eta lehentasunak ezartzekoan, irizpide osatuagoa izan dezan.

Aurreko galdetegian herritar helduon %75ek hartu genuen parte. Oraingoan ez gara gutxiago izango! Aurreko galdetegian bildutako erantzunen arabera atera ditugu orain arteko proiektuak. Horrela izango da aurrerantzean ere.

Parte hartuz, lanpostua sortu

Parte hartze prozesu hau martxan jartzea lortzen badugu, herriko gazte bati lanaldi erdiko lanpostua izateko aukera emango diogu. Beste arrazoi on bat Agenda 21a eraberritzeko parte hartze prozesu honen partaide izateko.

Zertan dira aurreko galdetegian erabakitakoak? eta bertan herritarrek egindako eskaerak?

Orain arte udaletxe honetan egin denak, aurrez Agenda 21ean ezarrita zegoenari eta galdetegitik jasotako emaitza eta proposamenei erantzun die.

Hondakin biltza sistema aldaketak, aurreko Agenda 21ean biltzen ziren helburuei erantzun die esaterako.

Galdetegian jasotako emaitzen arabera, **parkea** zen aurrera atera beharreko lehen proiektua. Hala egin dugu. Orendaindik Abaltzisketarako bidegorriaren proiektua izan zen bigarren aukera. Dagoeneko buru-belarri ari gara Abaltzisketako udalarekin elkarlanean bidegorria errealitate bilaka dadin. Aurreko proiektua diseinatuko dugu.

Herritarrek egindako proposamenei dagokionez, herri bideak garbi mantentzen saiatu gara, **pantano-**

rako bidea auzolanean bukatu genuen, udal **liburutegia** jarri da, liburutegia sarean sartzeko burrukan ari gara, Alegiako sarreran kotxeak ez aparkatzen uzteko eskaera egin genuen, errepidean animalien arriskuaz ohartarazten duten seinaleak jartzeko eskaera egin genuen, gimnasioa bere horretan ez izanagatik, **spinnineko bizikletak** hartu ditugu, herriko liburutegi nahiz ostatuan wifi gune irekiak izango ditugu laister, gazteei udaletxeko ganbara erabiltzeko aukera eskaini zaie, **zakarrontzi handiak gorde dira**, kale baserriko etxea alokatzeko aukera eskaini zaie herritarrei, **balioanitzeko gela** txertatu da liburutegian, **herrian eskola izateko eskaera** luzatu genuen hezkuntza departamentuan, kultur ekintzak eta **ikastaroak** herritarrek agertutako gustuen arabera antolatu dira, **plenoetako gai ordena** eta hartutako erabakiak etxeetara bidaltzen hasi gara, herriko ekintzetan herritarren parte hartzea bultzatu da...

Udalaren funtzionamentua herritarrek esandakoaren arabera izan da orain artean eta horrela izaten jarraituko du.

Horretarako zure parte hartzea ezinbesteko zaigu ordea. Orendain, guztion artean.

Etxe bakoitzetik bana!